

ERBI-AROKG EUSKAL ERRI-IZENEN IDAZKERA

Lengoan aztertu genduan larrukia apokrifo bat zan. XII mendekoa naiz berak X'cnekoa dala esan.

Borrokalde batean gudari gaztelafrei laguntzeko Millan Deuna mauritarrak illaz nola agertu zan esaten zigun larruki arek.

Larruki batean dago oinarritua, espaniarren ustez Jakoba Deunak Errioxa'ko Klabixo'n egin-bide zuan agertaldi ospetsua ere. Eta larruki au, Millan Deunaren beste ura bezala, apokrifo da. XII mendekoa au ere, naiz berak IX'ekoa dala oles-egin. «El Diploma de D. Ramiro» esaten diote azkeneko oni Espaini'ko edestilariek.

m larrukiak era berean daude pentsatuak: Idazti Deuneko «Epailleen liburua» dute eredu: 1=Kristaudiaren pekatua. 2~Jainkoaren zigorra (mauritarraren bidez gure idazti auetan). 3=Kns-taudiaren damua. 4=Jainkoaren laguntza.

Larrukiko D. Ramiro ori, Erramir I'a da, Asturietako Erregea. Borrokarako, «Naxera'ko bidea artu nuan, eta Naxera'tik Albelda'ra igo nintzan», diosku Erramir Erregeak?

Zertara etorri ote zan Errioxa'ra? Ez noski mauritarrak borrokatzera. Ortarako, bertago zeuzkan mauritarrak an, Leon'go rnugan. Bertago eta txit toki arriskutsuan bere Jaurerriarentzat.

Euskaldunok zanpatzera etorri zan Erramir Errioxa'ra! Bai odolez bai oldozkeraz, bisigotak ziran Asturietako Erregeak: inperialistak beraz, Aunamendiz onuntzko lur guztiak berenak ziztuztela ziur uste zutenak, eta beste ororen gaindi, euskotarren etsai amorratuak. «Domuit Vascones» zan, lengo errege bisigot zar aientzat bezala, entzun zezaketen goratzarrerik atseginena.

«Eun Ncskatillen Zerga» ezereztu-naiez asi zala dio Erramir'ek mauritarren aurka borrokan. Ortarako ez zuan Euskalerriara etorri bearrik. Leon'cn egin bear zuan ortarako borroka; ez emen. An ordaintzen zan zerga ori; ez, Euskalerrian.

Gaur, edestilari espafliarrek, zerga ura kondaira utsa, ots, «leyenda», dala esan oi dute. Ez dut uste. Baleike kondaira ez baina egiazko edestia izatea. Pakeak egiterakoan, garaituak naiz beartzen ziran aro aietan, garailleei urtero beste aberastasun batzuen artean neskatiak cmatera: mandoak, zaldiak, eta neskati politak!

Orduan gaiflera ez zuan asko balio emakumeak; mauritarren artean batez ere. Gaur bertan, Saudi Arabi'ko azoketan neskatiak dira sal-eros-gairik aipagarriena. 40.000 peztatik 35.000 peztara balio zuan an neska' batek, orain amar urte, «Esprit» aldizkarian irakurri nuanez Gaur, gauza guztiak garestitu dira-ta, igo da an bertan neskati'cn sal-neurria: 50 milla edo 95 milla pezta balio omen ditu bakoitzak, igaz «telebizio» edo irratikuskinan Libano'ko injineru batek agertu zigunez.

Antzinako «Eun Neskatiillen Zerga» ari buruz, gertakizun pitxi bat kontatzen digu Sanchez Albornoz'ek; Kondaira utsa dan gertakizuna noski:

Urte batez, eun ncskatillen artean Erregearen arreba gazte polita eskatu omen zuten mauritarrek. Aundikiekin batzarrean bildu omen zan Erregea, beste irten-bidenik ikusten ez zualako, mauritarrei bere arreba katibu emateko prest.

Jakiten du ori printzesak! Aserretzen da! Sartzen da sutunk batzarrera eta gogor ekiten die batzarkide guztiei.

Itunbenak bete-bearrak dirala esanaz erantzun omen zion batzarkide batek. «Lo pide el honor de Leon»

Baita printzesak arin erantzun ere: «Cavaleirus, Leon vus pide que salveis su honor con u ferru de vosas lansas y no cun u conu de vosas mulleres». Bizkorra neskatsa!

^ * v

Larruki ontan Erramir Erregeak aipatzen duan erri bat aztertutxu nai nuke:

ALBELDA. Espani'ko etimologilarientzat, izen ori arabierazkoa da. «ZURIA» esan nai omen du. Baleike, etimologia jakintza ziurra ez da-ta. Baina nere ustez, arabitarrek euskal-izen bateri arabiar-itxura eman bestenk ez zuten egin. Arabitarrek Errioxa'ra iritxi baino len, bazan Albelda. Agertu dira an VII mendeko erri baten aztarnak. Kronika zarrak, Zaragoza'ko II Muza'k Albelda «noviter instrucxerat» edo bir-babestu egin zuala; eta Albelda izen-eman ziola» diosku (Salmant. 26). «Izen-eman» ez bama «izen-aldatu» egin ziola esango nuke nik.

ALBELDA'ren «ALBEL» orren azpian «ARBEL» dagolaren ustean bait nago. «Arbel»; gaztelera, «pizarra».

«R» maiz biurtzen da «L», batez ere erdal-idazleek euskerazko izenak erderaz idazten dituztenean. Ikus:

ALB IN A, Legutiano eta Aramaiona'ren mugan dagoan mendi bat da; eta mendi ortan jaiotzen dan erreka. Albina'tik eta Gorbeia'tik etortzen zan gazteiztarrok edaten genduan ura, «pantano» edo aintziretakoa sartu ziguten arte.

Ona ba: XVIII mendeko notario baten idaztian, Albina ori, ARBINA agertzen da beti; eta bein baino geiagotan gaiflera. Idazti ori, 1408'an Leniz'ko eta Aramaiona'ko Aranek egin zuten muga-itun baten kopia da. ARBINA, eta az ALBINA, ikusten zuan 1408'ko larruki zar artan XVIII'eneko eskribauak, eta ARBINA idatzi zuan berak ere. Gero, XVIII mendeko idaztian,

beste norbaitek, beste tinta batez, ARBINA aien «R» guztiak «L» biurtu zituan. Baina, aulagoa bait da erabilli zuan tinta, «L» berriaren azpian argi eta garbi ikusten «R» zarra. Orrelako aldaketa txatxuak egin oi dituzte, erriak baino geiago dakitela uste duten letra-gizonek»!

Euskalerrian izen asko dira «AL» daramatenak: ALBAINA, ALBINA, ALDA... Araba'n bertan. «L» ori «R» dala itz askotan, esango nuke nik, eta ARRI «piedra», adierazten duala. Egi ez ote danaren bildur aundiz esana; arri labaina bait da etimologijakintza.

Batzuetan «L»kin eta beste batzuetan «R»kin idatzitako itzak ugari aurkituko dituzu entziklopedietan. ALTOLAGIRRE eta ARTOLAGIRRE, adibidez. Edo ARBURUA-eta ALBURUA edo ARBULUA. Eta baita ALBULUA ere, bi «R»ak «L» biurturik.

Naparro'an badira ALBIASU eta ARBIZU; entziklopediegiile guztiek baiflo askoz geiago dakian erriaren ezpainetan ALBIXU eta ARBIXU.

Esan daitekean gauza da beraz, Errioxa'ko ALBELDA euskaldunentzat ARBELDI zala. Gazteleraz, «pizarra». Itz on euskaldun aiek nola aoskatzen zuten ez dakigu. ARBELDI, agian? Itz batzuetan «R» «L» biurtze ori, euskal-fonetikak lege ote du?; eta, ala ba'da, zer baldintzetan egiten ote du aldaketa ori?

Latiegi'tar Bixente